

**JAINKOAGANAKO ERAGILEAK ETA
SAN JOAN GURUTZEKO**

Mailaz maila eta behar-beharrezko etenaldiak eginez, banoa aurrera san Joan Gurutzekoren itzulpen-lanean. *Karmel* aldizkariaren aurtengo 4. zenbakiak dei egiten dit eta ezin ez-entzun egin. San Joan Gurutzekoren esparrutik irten gabe, oraingoan ere. Ezin uka pixka bat harrapaturik naukala arnasa luzeko lan honek eta bereziki pertsonaiak berak. Jainkoarekin bat egiteko bidea, perfekzio-bidea, markatzen digu autore espiritual gorenetakoa honek; bere obra guztietan: obra txikietatik hasita handietaraino, baina batez ere *Karmel Mendira Igoeran* eta *Gau Ilunean*.

Obra aszetikoak eta mistikoak dira haren lanen artean, askotan batzuk eta besteak elkarrekin gurutzatzen dira baina. Aszetikak kristauaren esku-hartzea, ahalegina, eskatzen du, betiere Jainkoaren graziaz eta laguntzaz kontaturik. Mistikak, berriz, ez du kristauaren esku-hartze eta ahaleginik eskatzen. Kristaua hartzaile pasiboa da, Jainkoaren grazia hutsa da; baina kristaua, normalean, aurreko etapa guztian prestatu da honetarako, eragozpenak kenduz eta Jainkoaren graziari bide eginez. Perfekzio-bidean aurrera egitea, aszetikari dagokionez, betiere Jainkoaren graziaz eta laguntzaz, baina kristauak bere ahaleginenez lortzen du. Horregatik, *lortua* dela esaten da; mistikakoa, ordea, kristauak bere aldetik ezer egin gabe Jainkoaren grazia hutsez hartzen duena, *bartua* dela esaten da. Hona santa Tere-saren liburuan azpiko ohar batean datorrena:

Arimaren baratzea da erabiliko duen irudia. Irakaspen honek, otoiitz-bizitzaren tratatu txiki honek, 11. kapitulutik 22ra artekoa hartzen du, baina bizitzaren kontakizunean txertaturik doa, borroka-bizitzatik, hau da, fase aszetikotik, bizitza mistikora igarotzearen bidegurutzea agertuz.

San Joan Gurutzekoren *Kantu Espirituala* eta *Maitasun Garbizia*, berez, argi eta garbi obra mistikoak dira. Mundu honetan izan daitekeen kreatura baten eta Jainkoaren arteko bat-egiterik gorena kantatzen eta kontatzen da bi obra hauetan. Adituek diotenez, bata bestearen jarraipena dira; bata bukatzen den tokian hasten da bestea. Baina izenburuak dioenez, ez dut hau gaurko gaia. *Karmel Mendira Igoerako* azken kapituluetak gai zehatz banakak hartu ditut mintzagai. “Jainkoaganako eragileak” izen orokorraz markatu dut abiapuntua. Honen aurrekoan *arte*a, *irudi*ak, *debozio*a izan ziren eragile horiek. Oraingoan, berriz, *prediku*ak eta *predikari*ak izango dira.

Hitza, Jainkoaren hitza, aldarrikatzea. Jesus bera, hitzez eta egitez, Maisu goren, salbameneko mezuzagertu zitzaigun. *Jesusek hitzaldi hau amaitu zuenean, baren irakaspenez txunditurik gelditu zen jende guztia; nagusitasunez irakasten baitzien, eta ez beren arteko lege-maisuek bezala* (Mt 7, 28-29). *Hamabiei agertu zitzaient, eta esan zien: “Zoazte mundu guztian zehar eta hots egin berri ona izaki guztiei”* (Mk 16, 14-16). San Paulok hitza aldarrikatu beharra adierazten du testu honetan: *Egiaz, berri ona hots egiten dudala-eta ezin naiz harrotu; ezinbesteko eginbehartzat jotzen baitut hori, eta errukarria ni, berri ona hots egingo ez banu!* (1 Ko 9, 16). Hori bere buruaz dio; Timoteori eginiko 2. epistolan, berriz, hau diotso: *Hots egin Jaunaren hitza, ekin garaia denean eta ez denean, eman arrazoiak, zentzarazi eta eman adore, zeure pazientzia guztia eta irakasteko gaitasuna erabiliz* (2 Tm 4, 2).

Testu horietan, Jainkoaren hitza aldarrikatzea, irakastea hartzen da kontuan, hau da, ez oratoria ez arte dramatikoa. San

Pauloren garaian ere baziren etorri on eta jario ederreko hizlariak, baina bera ez doa hortik. Berri ona hots egitea da kontua.

Baina, era orokorrean hitz eginik, helburua didaktikoa izan arren, arteaz baliatzen da predikaria Jainkoaren hitza erakar-garriago egiteko. Arte dramatikoaren sailean kokatzen dute oratoria. Beraz, ez da nahiko egiak, Liburu Santuetako doktrina, soil-soil eta hotz-hotz azaltzea. “Hitz-etorri dotoreaz, ahots-doinu egokiaz, irudiz, sentipenez, gorputz-higikune eta adierazpenez hornitu eta jantzi behar da. Egia aldarrikatuz on dena desiragarri egin eta hura erdiestera eragin behar du sermoigintzak. Agustin Santuak honela diosku: *ut veritas pateat, ut veritas mulceat, ut veritas moveat*. Hots, egia argi eta garbi ager dadin, egiak lilura sor dezan, egia eraginkor izan dadin”¹.

Baina san Joan Gurutzekoren doktrinan sartu aurretik, bi Teresek –Lisieuxkoak eta Avilakoak– prediku eta predikariez zer iritzi duten, zer dioten, adierazi nahi nuke, labur bada ere.

Santa Teresatxo Lisieuxkoa

Teresa Lisieuxkoak asko sufritu zuen bere garaiko predikari eta kontzientzi zuzendariekin. Izan ere, jansenismoa zen orduan eta gero ere bolada indartsuan. Seminarioak eta apaizik gehienak haren eragin hertsu eta galgarriaren pean zeuden. Teresa Martin Lisieuxko Karmelen sartu zenean, giro espiritual hori zegoela dioskue batzuek eta besteek. *Creer Amando* liburuan² badira pasarte batzuk, gai hori ukitzen denekoak, eta giro itogarri horrek biziki sufriarazi ziola Teresari diosku. Hona liburuan datozen pasarte batzuk euskaraz neure erara jarririk: *Bere familian jaso duen Jainko onak ez du zerikusirik komentuan aurkitu duen Jainko baserretu eta epaile zorrotzarekin. Teresatxok barneraturik zuen sentimendua, Jainkoa ama bat baino samurragoa de-*

¹ Baraiazarra, L.: *Lehen go sermoigintza eta sermolariak oroituz* (Karmel, 1987-1).

² Olea, A.: *Creer Amando* (1996, Ed. Monte Carmelo. Burgos).

lakoa (A esk., 80a), berriro ere ezbaian jarria izan zen, aurrez ikastetxean ikasten ari zenean bezala, eta hortik etorri zitzaion eskrupuluen gaitz ikaragarria (A esk., 39i). Orduan Domin apaiza zen ikastetxeko kapilau eta bakarraldietako zuzendaria.

Karmelera etortzen diren kontzientzi zuzendariak janse- nismo bertsienaren gaitzak jota daude. Youf apaizak, Teresa- txok Karmelen izan zuen kapilau bakarrak, eta gogo-jardu- nak ematera eta bakarraldietan predikuak egitera Karmelera etortzen ziren gainerako elizgizonek, Jainko gogor, epaile zo- rrotz eta baserrekorra predikatzen zuten. Izua bezur-muine- taraino sartzen zuen Jainkoa zen haien predikuetakoa. Itun Zaharreko Jainko beldurgarria. Jainko zorrotz mendekaria.

Beti ez ziren halako predikari eta kontzientzi zuzendariak izaten, zorionez. Bere profesaren ondoren izan zuten baka- rraldian grazia handiak jaso zituela dio. Hona beraren hitzak:

Gebienetan, hitzaldiekin egiten ziren bakarraldiak neka- garriago zitzaizkidan neuk bakarrik egiten nituenak baino. Baina urte hartan bestera izan zen. Gartsuki egin nuen pres- taerako bederatziurren bat, kontrako barne-sentimendua izan arren, bizlariak ezin izango zidala ulertu uste bainuen, erlijiosoen arimek baino gehiago bekatar handiei on egitera ohitua egonik. Jainko Ona, nire arimaren zuzendari bakarra bera zela niri erakutsi nahirik, neuk izan ezik beste inork aintzat hartu ez zuen Aita honetaz baliatu zen. Garai hartan era guztitako barne-kezka handiak izan obi nituen (noizbait zerurik ba ote zen galdetzeraino). Ni neure barruko egoeraz ezer ez esatekotan nengoen, ez bainekien nola adierazi, bai- na aitorekuan sartu nintzeneko, neure arima zabalitzen su- matu nuen. Hitz gutxi batzuk esan ondoren, era harrigarritz ulertu zidan guztia, baita igarri ere... Nire arima liburu bat bezala zen, aita bark nik neuk baino hobeki irakurtzen zue- na... Belak zabalik abiarazi ninduen konfiantzaren eta mai- tasunaren olatuetan zehar, biziki erakartzen ninduten, baina aurrera egiten ausartzen ez nintzen haietan zehar... Nire butsegiteek ez ziotela Jainko Onari nabigaberik ematen esan

*zidan; baren lekuan egonik, baren izenean esaten zidala bu-
ra oso pozik zegoela nirekin...*

*Oi, bai zoriontsu izan nintzela hitz pozgarri hauek entzu-
tean...! Artean ez nuen sekula entzun hutsegiteek Jainkoa ez na-
bigabetzea posible zenik. Ziurtasun honek pozez gainezka utzi
ninduen; bizitzako erbestea egonarriz jasaten lagundu zidan...
Nik neure bihotz barruan hau egia zela nabaritzen nuen,
Jainko Ona ama bat baino samurragoa baita (A esk. 80i).*

Ondorengo lerroetan esango digu beldurrak atzera eragiten diola; maitasunak, berriz, aurrera: *Izan ere, balakoxea naiz ni: beldurrak atzera eragiten dit; maitasunarekin, ez aurrera egin bakarrik, began egiten dut...*

Dena dela, miresten ditu eta maitatzen misio-lurraldetan ari diren predikariak. Teresatxoren bokazioa, izan ere, otoitzaren bidez apostolu eta misiolari izatea da; hau dio berak: *Maitasunak bokazio guztiak hartzen zituela konturatu nintzen, Maitasuna guztia zela, aldi eta toki guztiak hartzen zituela... hitz batez, Betikoa dela...!* Eta jarraian ospetsu egin zen esaldia: *neure Ama den Elizaren bihotzean, ni Maitasuna izango naiz!... Horrela guztia izango naiz...!* (B esk. 4a). Misiolari eta apostoluen ama izango da. *Nola ez egin otoitz misio-lurralde urrunetan baiek, sufrimenduz eta predikuz, salbatuko dituzten arimen alde?* (C esk., 36a).

Aita Roulland misiolari gaztearekin harreman espiritualak zitu-
tuen. Aita Roulland txinera ikasten ari zen; honela idatzi zion
Teresari: “Noiz egingo ote dut nik neure lehenengo bataioa,
neure lehenengo konbertsioa? Hara bada, ez naiz ume handi
bat besterik; ez dakit hitz egiten. Hilabete batzuk familia kristau
batekin igaroko ditut, hizkuntza, ohiturak etab. ikasten eta gero
apostolutza egitera neure antzinako lankide batekin”.

Eta Teresatxoren erantzunetik hau azpimarratu dut: *Ene ne-
ba, zure apostolutzaren basiera gurutzearen zigiluak marka-
tu du eta Jaunak bautatu gisa tratatzen zaitu: askoz ere na-*

biago du bere erregetza sufrimenduz eta jazarpenez fmka-tzea, prediku bikainez baino. Zuk hau diozu: "Oraindik hitz egiten ez dakien haurtxoa naiz...". Zure egun berean apaiz ordenatua izan zen Aita Mazel-ek ere ez zekien hitz egiten, baina hala ere, palma-adarra eskuratu zuen.... (TG 226).

Santa Teresa Avilakoa

Teresak maite ditu predikari eta teologoak eta bere erreformaren helburu nagusietako bat haien alde otoitz egitea da, hau da, apostoluen apostolu izatea. Hona beraren hitzak:

Nik neure esku zen apur hori, hau da, Ebanjelioko aholkuak abal nuenik eta hobekien jarraitzea erabaki nuen eta hemen dauden gutxi hauek ere gauza bera egin zezaten lebia-tzea, Jainkoaren onberatasun handian uste osoa jarririk, bera-gatik guztia uztea erabakitzen dutenei ez baitie sekula ere buts egiten. Eta haiek nik neure ametsetan irudikatzen nituen beza-lakoak izanik, beraien bertuteen artean nire butsek ez zuketzen indarririk izango, eta zerbaitetan kontenta nezakeen nik Jauna, eta guztiok Elizari eusten dibardutenen laguntzaile, predikari eta irakasleen alde otoitzari emanda, abal dugun heinean neure Jaun honi laguntzeko gai izango ginen (Bidea, 1, 2).

Geroago, hirugarren kapituluan, gai berari ekiten dio:

Baina zertarako esan dut hau? Zuek uler dezazuen, ene abizpak, hau dela Jainkoari eskatu behar dioguna: kristau onak dauden gaztelutxo honetatik honezkero ez dadila joan inor etsaien aldera, eta gaztelu edo hiri honetako buruzagiak, hau da, predikari eta teologoak, Jaunaren bideetan oso sendo egin diatzala. Beharbada esango duzue, ea zertarako azpimarratzen dudan hau hainbeste, eta zergatik diodan geu baino hobeak direnei laguntzeko. Esango dizuet nik, uste baitut oraindik ez du-zuela ulertzen Jaunari zenbat zor diozuen munduko arazo eta erorbide eta barremanetatik askatuak zaudeten lekura ekarri zaituztelako: mesede handi-handia da hau; esan ditudan haiek, orde, ez daude baietatik aske, eta ez da egoterik komeni ere, garai hauetan gutxiago beste batzuetan baino; izan ere, haiek

izan behar dute jende abulari sendotasuna eta txikiei adorea eman behar dietenak. Onak leudeke soldaduak kapitainik gabe! Gizakiekin bizi behar dute eta gizakiekin harremana izan eta jauregietan egon eta are gebiago, batzuetan, haien antzekoak izan behar dute azalez. Uste al duzue, ene alabak, erraza dela munduarekin harremanetan izan eta munduan bizi eta munduko arazoetan sartu eta, esan dudanez, munduko elkarrizketetara moldatu, eta, hala ere, barrutik munduarentzat arrotz eta haren etsai izatea eta atzerrian dagoena bezala izatea eta, azken batean, gizakiak ez baina aingeruak izatea?

Bada, halakoak ez izatekotan, ez kapitain izenik merezi dute, ez Jaunak utz bieziaie beren geletatik irteten, mesede baino kalte gebiago egingo baitute (Bidea, 3, 2-3).

Hitzez baino egintzen bidez predikatzeaz ari da testu honetan: Errurik gabe kondentatzen dutela ikusi arren, norbere burua ez zuritzean on handia dagoela adierazten du. Hona hango pasarte bat:

Batzuetan, bonelako gauza batek gebiago jasotzen du ari-ma hamar predikuk baino. Bada, guztiok izan behar dugu predikari egintzen bidez, hitzen bidez izatea Apostoluak eta gaitasunik ezak³ eragozten baitigute (Bidea, 15, 6).

Bada kritika estalirik eta ez hain estalirik ere prediku eta predikariez:

Sermoietakoa sufrikarioa ez zen txikia, eta oso zalea nintzen baietara, eta horrela, norbaitek bihotz-bihotzez eta ongi predikatzen zuela ikusiz gero, maitasun berezia bartzen nion, nik neuk bilatu gabe, nork jartzen zidan ez dakidala. Ia egundo ere ez zitzaidan pozik ez entzuteko bezain sermoi txarra iruditzen, haren entzuleen arabera ongi predikatzen ez bazuen ere. Ona baldin bazen, berariazko gozamena zen niretzat.

³ Ironia antzekoa sumatzen dut Teresaren esaera honetan; *Apostoluak* maiuskulaz idaztean, san Paulo esan nahi du, hark emakumeak elizan isilik egoteko, hots, ez dezatela predikurik egin, esaten baitu...

Jainkoaz hitz egiten edota Hartaz entzuten ia ez nintzen egundo aspertzen, eta hau otoitzari ekin nionez gero izan zen. Batetik, benetan kontsolagarri zitzaizkidan sermoiak; bestetik, samingarri, baietan ulertzen bainuen ez nintzela behar nukeen erakoa, ezta gutxiagorik ere. Lagun ziezadala eskatzen nion Jaunari; baina –orain uste dudanez– Haren Maiestatean konfiantza osoa jartzea eta neure buruagan konfiantza guztia galtzea falta zitzaidan (Bizitza, 8, 12).

Zenbait predikarik Apostoluek zuten garrrik ez zutela dio:

Predikariak ere beren sermoiak inori minik ez emateko eran egokituz joaten dira. Asmo ona izango dute eta egintza ere ona; baina horrela gutxi dira bide onera bihurtzen direnak! Baina zergatik ez dira asko sermoiengatik ageriko bekatuak alde batera uzten ez dituztenak? Badakizu zer pentsatzen dudan? Sermoiak egiten dituztenak oso arrazoitsuak direlako dela. Ez dau-de arrazoirik gabe, Jainko-maitasunaren su biziz Apostoluek zeudenez, eta horrela gar honek gutxi berotzen du. Ez dut eskatzen baiekin zutena bezain bizia izatea sua, baina nik ikusten dudana baino biziagoa izatea nahi nuke. Badaki berorrek zerk duen borretan garrantzia? Bizitzari bigun eta oborea estimu gutxitan izateak; berdin zitzaien –egia esatearen eta Jainkoaren aintzarako hari eustearen truke– guztia galtzea nabiz guztia irabaztea; Jainkoagatik guztia jokoan jarria duenari, berdin zaio bata nabiz bestea. Ez dut esaten ni neu horrelakoa naizenik, baina izan nabiko nuke (Bizitza, 16, 7).

Predikariak maite zituen Teresak eta, goian aipatu ditugun bezalako kritikatzeko bakanak gorabehera, biziki miresten eta goresten zituen. Joan Gurutzeko eta Antonio Jesusena, Duruelon, inolako irakaspenik gabe zeuden inguruetara joaten zirela diosku, eta horregatik bakarrik ere poztzen zela han etxe bat eraiki zelako.

San Joan Gurutzeko

Pertsonaren bihotza Jainkoaren zerbitzura eramaten duten gauzez ari da atal honetan. Eragileak deritze:

Hauek predikariak dira; baietaz bi eratara hitz egin genezake, hau da: predikariei beraiei dagoen aldetik eta entzuleei dagokien aldetik. Batzuei eta besteei ohartarazi behar zaie nola bideratu behar duten borondatearen poza Jainkoagana, bai batzuek eta bai besteei, jarduera honetan.

Eta doktrinak bere indarra itsats dezan, bi jarrera dira bebarrezko: predikatzen duenarena batetik eta entzuten duenarena bestetik; zeren, gebienetan, egiten den probetxua, irakasten duenaren jarreraren araberrakoa izaten baita. Horregatik esan obi da: irakaslea nolako, ikaslea halako.

Izan ere, Apostoluen Eginetan juduen apaizburu baren zazpi semeek san Pauloren era berean deabruak botatzeko konjuruak egiten zituztenean, deabrua sutan jarri zen haien aurka, esanez: Ezagutzen dut Jesus eta badakit Paulo nor den. Baina nor zarete zuek? (19, 15) eta, haiei eraso eginez, larrugorrian jarri zituen eta kolpatu. Haiek bartarako komeni zen jarrerarik ez zutelako gertatu zen hori, eta ez Kristok bere izenean egitea nahi ez zuelako; hain zuzen ere, Apostoluek aurkitu zuten, behin, bat Jesusen izenean deabruak botatzen, eta eragotzi egin zioten, eta Jaunak kargu hartu zien, [esanez]: Ez eragotzi; ez baita inor nire izenean mirari bat egin eta handik gutxira nitaz gaizki-esaka jardungo duenik (Mk 9, 38). Begitan harturik ditu, ordea, Jainkoaren legea irakatsi bai baina betetzen ez dutenak, espiritu ona predikatu bai baina espiritu on hori ez dutenak. Horregatik dio, hain zuzen, san Paulok (Erm 2, 21): Zuk besteei irakasten diezu, eta ez zeure buruari. Ez dela ostu behar predikatzen duzu, eta zuk ostu egiten duzu. Eta Dabiden bidez (Sal 49, 16-17) dio Espiritu Santuak: Gaiztoari diotso Jainkoak: Nola aipa ditzakezu nire arauak, nola ahotan hartu nirekiko ituna, nire zentzarazpenari gorroto badiozu eta nire hitzei bizkar ematen? Ez diela espiritua emango fruitua ekar dezaten esan nahi da hitz horrekin.

Gebienetan ikusten dugu, hemen iritzi eman dezakegun heinean, zenbat eta predikaria biziera hobekoa izan, fruitu gehiago lortzen duela, nahiz eta haren estiloa hala-holakoa, eta erretorika gutxikoa, eta haren doktrina arrunta izan, espiritu biziak bere beroa itsasten duelako; baina besteak on handirik ez du egingo, estilo jantzia eta goi-mailako doktrina izan arren. Egia

da, hala ere, estilo eta deklamazio onak, goi-mailako doktrinak eta hizkuntza ederrak, espiritu onarekin batera, eragina eta efektua dituztela; baina espiriturik ez bada, sermoia zentzumen eta adimenerako atsegin eta gustagarria bada ere, borondateari zuku gutxi edo batere ez dio ematen; gebienetan, borondatea, ekintzarako lehen bezain indarge eta nagi geratzen delako, gauza miragarriak esan arren eta era miragarrian esanak, entzumenari atsegin emateko baino ez direnak, kontzertuetako musika bezala, edota kanpaien hotsa bezala; baina espiritua, diodanez, ez da lehen baino gehiago irteten bere lekutik, abotsak ez baitu indarririk hila bere hobitik pizteko.

Gutxi axola du beste musika bat baino hobea entzuteak, [honek] bark baino gehiago mugitzen ez banau ekintzetara; gauza miragarriak esan arren, berehala abazten baitira, borondatean surik piztu ez bada. Izan ere, zentzumenak halako doktrinaz gozatzeak ez dakar, berez, fruitu handirik eta, gainera, espirtura igarotzea eragozten du; doktrina azaltzeko moduaren eta xehetasunen irizpenarekin geratzen da soilik, honetan edo horretan predikaria aupatuz eta horregatik bari jarraituz, bandik ateratzen den zentzagarriagatik baino gehiago.

Oso ongi azaltzen du doktrina hau san Paulok Korintokoei esaten dienean (1 Ko 2, 1-4): Ni, ene senideok, zuengana etorri nintzenean, ez nintzaizuen etorri goi-doktrina eta jakinduriaz, eta nire hitzak eta nire predikua ez ziren giza jakinduriazko erretorika, espirtuaren eta egiaren adierazpena baizik. Apostoluaren asmoa eta nirea hemen, ez da estilo landua eta erretorika eta hitz egokia gaitzestea; alderantziz, predikariari oso ongi datozkio, baita beste gauza guztiei ere; hitz egokiak eta estilo jantziak gauza eroriak eta hondatuak ere jaso egiten baititu eta berregiten; hitz desagokiak, ordea, onak direnak hondatzen eta galtzen.

Azken gogoetatzkoak

Ezaguna da san Joan Gurutzekok konteplazio-bizitzara zuen joera, baina, jakina, ez dio uko egiten apostolutza-lanari. Hala ere, predikari baino gehiago zuzendari espiritual, kon-

tzientzietako maisu eta gidari izatea zuen berea. Ez zitzaion predikurako dohainik falta; hitz-etorri ederra zuen. Beraren garaikoeak asko goraiatzen zuten haren hitz egiteko egokitasun miresgarria, askotan ingurukoak txunditurik, liluraturik, nekatu gabe atseginez entzuten izaten zituen. Baina aitorlekuan bana-banako eta kontzientzia-maisu izatea, apostolutza isila zuen maiteago pulpitukoa eta jende artekoa baino.

Bestalde, asko sufritu zuen bere bizitzan batez ere bi predikariren aldetik. Hauek Diego Ebanjelista eta Frantzisko Kri-sostomo dira, Andaluziako Bikario Probintziala eta Ubedako priorea hurrenez hurren. Sermolariak ziren, pulpituan Jainkoaren ohorea baino gehiago beren ohorea eta ospea bi-latzen zituztenak, dirudienez; predikuei gehiegi emanak-edo, karmeldar oinutsen bizitza ongi ez betetzeagatik, kargu hartu zien lehenago Joan Gurutzekok, bera nagusi karguan zenean. Hura ahaztu gabe zeukaten-eta, geroago, aginte-karguak izan zituztenean, mendeku hartu zioten eta asko sufriarazi bizitzako azkenaldian. Beraren ikasle zintzo Joan Ebanjelistak kontsolatu nahirik idatzi zionean, Jainkoari bere alde otoitz egiteko eskatzen dio soilik, eta Bibliako esaldi hau idazten du tristuraz: *Filii matris meae pugnaverunt contra me.*

Luis Baraiazarra Txertudi